



da nola

ERREGE HILA

Harotz bat hartu nuen
nire hilkutxa josteko
bertan etzan naiz bart
burkoa borrokarako prest,
borrokarako prest.

Zuraren lurrinpean,
aise lagaz
errege zaharrari nire gainean
har dezan arnas.

Isiltasuna izango da
izuaren amaiera.

Izua, nire ahoa betetzen duen zakur,
izua, sudurrean gora doan simaur,
izua, izua.

Nire suzko arropekin
dantzatuko naiz orduan
horra hegaldi erraustua
itsututa tximak
itsututa hatzak.

Isiltasuna izango da
izuaren amaiera

Izua, ura altzairu bihurtzen den lekuan,
izua, euliak belarrian burrunban,
izua, izua.

Izua, eguzkia pizten zait altzoan,
izua, gaua itzali ezin denean,
eta egunsentia, betirako da
giltzapean.

Hitzak: Harkaitz Canok Anne Sextonen "The Death
King" poematik egindako itzulpenean
oinaritua.

Musika: Inun.